

Euskal joskeraren mito kaltegarriak (eta III) Aditza maiz euskaraz esaldi hasieran

Bittor Hidalgo

*Artikulu honen aurreko bi ataletan defendatu dugu, batetik, hitz-ordena-
mendu librearen ezaugarria euskal joskeran,* eta era berean, euskarak
libertate honen barne erakutsi duen joera, usuenik praktikatzeko, 1. ele-
mentu laburrak + 2. aditza + 3. esaldiko elementu luzeenak itxurako
segidak, batere begiramenik gorde gabe Azkue-Altuberen galdegai-
-legeei. Orain bereziki aitatu nahi dugu euskal joskeraren beste joera
garrantzitsu eta betidaniko bat: aditzak maiz erakustekoa esaldi hasie-
ran bertan.*

Aditza esaldi hasieran gure tradizio guztietan

Legeak lege, Altubek eta altubetarrenek ere, hasieratik onartu dute, beren galdegai legeak ez direla bete ohi kontu kontarian. Eta, beren hitzetan, narrazioek joera berezia izan dutela beti, aditza esaldiaren aurrealdean edota hasieran bertan erakusteko.¹ Hala, gure tradizioko autore oro eta ahozko erabilera guztietan, maiz aurkituko ditugu aditzaz hasitako esaldiak, galdegaia ere nabarmen asko daramatenak aditzaren ondoretik, segidakoon antzekoak:²

Eldu ziran agintariak. Jaso eben urkatua ta asi zan jueza bere asterketak egiten,... (Ziarsolo "Abeletxe", *Gazi-gazak*, 1984, 7)

- *...errecituan erri asco Cerutic biralduricaco suarequin, ondatuzuan Mundu gucia zortci lagunez besteac...* (F.A. Aguerre, *Oikiako Dotrina*, 1759 -1987-, 546)
- *Bete ciran Jaunac marcatu cituan demborac, eta etorri zan Salvatzalilea: vicitu zan oguei, ta amairu urtean, eracusten zuala Ceruraco bidea: eman zuan gurutzean bere vicitza, eta irabaci zuan guretzat,...* (J.B. Aguirre, *Eracusaldiac I*, 1808 -1850-, 13 or.)
- *Deituten deutsie goizean goiz, gaberditik laster; jagiten dira berealako baten; jazten ditue zirezko soñak, euria bada; ipinten dabie besapean otzaratxu bat,...* (Tx. Agirre, *Kresala*, 1905 -1976-, 65)
- *Azaltzen da On Geolimo eta arrapatzen ditu labak aurrian parrez daudela eta Patxi atzian kanillatik eraten ari dala eta erasotzen diyo ari.* (T. Alzaga, *Aterako gerala*, 1888 -1990-, 51)

- *Jausi zan Salomon, jausi zan David, jausi zan Sanson, jausi zan San Pedro* pelligruzco ocasiñoan ifiniric: ... (P.A. Añibarro, *Lora Sorta Espirituala*, 1803 -1988-, 28)
- ...*leitzen zitun* sorgiñkerizko liburuak, erretorak erre zitunak geroago. (A. Apat-Echebarne, *Noticias y viejos textos de la "Lingua Navarrorum"*, 1971, 209)
- *Iaquin behar ditu*, lehenbiceroric Credoan diren articulu fedezcoac. (P. Argaiñaratz, *Devoten Breviarioa*, 1665 -1910-, 102)
- *Asi ziran* ikusten liburuak zer ote zekarren ta ... (J. Arratibel, *Kontu zaarrak*, 1980, 20)
- *Artzen du* Jenobebak bere eriotzako epayaren albistea (G. Arrue, *Santa Genovevaren vicitza ...*, 1868 -1987-, 55)
- *Hartzen dugu gogo, hartzen dugu borondate*, obra onak egin behar ditugula: eta *ethortzen gara* egin behar ditugun orenera, ordea ... (P. Axular, *Gero*, 1643 -1976-, 49)
- *Eroan eban* arimazainak Elizgela edo Sakristeira, ta an ... (R. M. Azkue, *Euskalzale*, 1897, 11)
- *Etorri gera* gaur ibar edo balle argidotar eta eder onetara, gure izkuntz paregabearen, gure euskara maite maitiaren alde zerbait egiteko. (A. Campión, *Euskal Esnalea*, 1908, 6, 66)
- *Oitu bear dira*, ez emengo Izqueran bacarric, ezpada edoceñ Dialectoan, ... (A. Cardaveraz, *Eusqueraren Berri Onac*, 1761, 19)
- *Hasiko naiz* Baiona aldetik eta *iraganen naiz* Eskal-herri guzia gaindi. (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 1858, -1986-, 65)
- *Sarthu cen* Naffarroaco eremuetan, eta *setiatu zuen* Iruñea Escualdunen hiri buruçaguia: ... (J. Etcheberri, *Laburdiri escuararen hatsapenac*, 1712 -1907-, 34)
- *Deitze diove* Apostoluen Simboloa: ... (J. I. Guerrero, *Cristau Doctrina I*, 1805 -1858-, 27)
- eta *izan cituen* hiru seme, Her, Onan, eta Sela. (F. I. Lardizabal, *Testamentu zarreco ...*, 1855 -1887-, 58)
- *Egin zuen* Jaungoicoac argi ura, esan degun bezala, argi-utsa, ... (M. Larramendi, *Corografía de Guipúzcoa*, 1754 -1990-, 62)
- *Esan daroe*, mandaco on bat, aunts-on bat, ta emaste onbat, yru cuca [gauza?] gaysto direala. (R. Micoleta, *Modo Breve de aprender la lengua Vizcayna*, 1653 -1897-, 27)
- *euquico dozu* gosari ecin obia: *miazcatuco dituzu* atzac gozuaren gozoz. (J. A. Moguel, *Peru Abarca*, 1802 -1881-, 70)
- *Izango dá*, barriz veniala, vorondate osuagaz, edo gauza chicarrian danian. (B. Olaechea, *Doctrina Cristiana*, 1763 -1848-, 32)

- *Eçagutzentu* gauçac, ez guiçonek beçala, ceren ... (S. Pouvreau, XVII -*Les petites œuvres*, 1892-, 39)
- *Ianen duc* libroqui baratceco arbola gucietaric. (P. Urte, *Biblia, Ethorquia*, 1700 -1894-, 4)
- *Minçatuco* naiz harequiñ, eta *erranen diot* çure descensua. (Voltaire, *Tresora hirur lenguayetakua ...*, 1620 -1971-, 185)

**Aditz aurreratuak
dakarkio
arintasuna
kontakizunari. Ez
alderantziz**

Eta, ordea, zer ez da narrazioa eta kontu kontaria, elkarriketa laburretik kanpo? Baita testua filosofiaz ari bada ere. Eta, izan ere, gure tradizioa eta ahozko-erabilera aztertuaz, ez dirudi horrenbeste, periodo bereziki narratiboak direnik, lizentzia dutenak, aditza esaldi hasieran emateko (edo aurrealdean). Baizik eta, bestela, nahikoa dela, aditza esaldi aurrealdean edo hasieran ematea, zeinahi klasetako testu ere arinagoa, narratiboagoa eta irakurgarriagoa bihurtzeko euskaraz ere. Nornahik egin dezake froga.

Zuzenean aditzaz hasitako esaldiak hala ere, ez dira inoiz izan ugariek euskaraz, nahiz bai esanguratsuak³. Izan ere, euskal aditzak beti izan du joera nagusia agertzeko, bigarren elementu bezala multzo batean. Joera berau ere, agi denean, hiztunak bere aukeran hauts lezakeen arren aditz perifrastikoen kasuan,⁴ bere kontakizunari arintasun berezia emanez. Eta nahikoa dirudi joskera hori legezatzeko, hiztunak aditz hau ematen badu galdegaiarekiko multzo foniko independente batean, eta gorantzako entonazio bat gordeaz, ondorengo prediku-zatien garrantzi berezia iragartzen. Eta hala aurkituko ditugu esaldi hasieran maizenik, bestela ere nahiko aurrealdean agertzeko joera duten aditz mota haiek (entendimenduzko aditzak, galde-erantzun jokoetakoak, ...). Nahiz, baita ere beste zeinahi, hasieratik konfiguratzeko esaldien marku predikatiboa, goiko adibideen artean suma litekeen bezala. Azterketa estatistiko zabalago batek lagundu behar liguke hobeto ezagutzen, esaldion maiztasun konparatiboa, nola, batez ere, beren erabileraren testu-inguru baldintza zehatzagoak.

**Aditz trinkoak ere
esaldi hasieran
buruzuri**

Aditzak esaldi hasieran ematearen fenomenoan nolanahi, ez da inoiz mugatu euskaraz aditz konposatuetera, ez ahozko erabileran, eta ez literatur tradizioan. Eta gure autore gehienengan aurki ditzakegu aditz trinkoak ere zuzenean emanak esaldi hasieran, segidakoon antzekoak:

- ... eta *daucat* asmo sendoa ez zu berriz ofenditceco secular. (F. A. Aguerre, *Oikiako Dotrina*, 1759 -1987-, 532)
- *Cijoan* beñ Jesus Galileara. (J. B. Aguirre, *Eracusaldiac I*, 1850, 40 or.)
- *Deitzot*, Ama, gudarik dan edo eztan ziartu eztakigula, ... (Tx. Agirre, *Auñamendiko Lorea*, 1897 -1966, I-, 14)
- ...; urrutira dijoana ezkontzera, edo *da* engañatua edo *dijoa* engañatuzera. (Tx. Agirre, *Garoa*, 1912 -1966-, 115)

- ..., eta *dator* ondoren jende pilla bat. (T. Alzaga, *Burruntziya*, 1931 - 1990-, 125)
- ...*Zagoz* pobre, bearturic, cer jan ta janci ez dozula; ... / *Dozu* senar bat jocularia, ...; *daucazu* senar bat edan charrecoa, ... *Daucazu* emazte bat ernegaria, bicia, ... / *Daucazuz* seme alaba deunguero aciac, muquerrac, ... / *Zara* otseiña, serbitzaria, ...; *dozu* ugazaba ta ugazabandre bat guztiz estua, ... / *Daucazu* faltaren bat gorputzean; ...; edo *zagoz* beste penaren bategaz; .. / *Dacus* neque pena baga ego- nic galduco ciñatequela: ... (P. A. Añibarro, *Nekea Arindurik*, 181? - ASJU, 1986- 221-3 orr.)
- ..., aiticitan *da* escola bat beçala, (P. Argaiñaratz, *Devoten Breviarioria*, 1665 -1910-, 2)
- ... (Farreguizu, farreguizu, milla mingañec baño zure farrac gueyago esaten dit eta.) *Da* esaten baciñit becela -Ez negarric eguiñ, amacho, ... (G. Arrue, *Bravanteco Genovevaren ...*, 1885, 39)
- (...konparazino bat...) Eta *da* konparazinoa: (Gizon batek erein zuen bere landan hazi ona, ...) (P. Axular, *Gero*, 1643, -1976-, 133) / (... arrazoin ona ...) Eta *da* arrazoña: (Prometatu zerauen, igurikiko zerauela ehun eta hogoi urthez, ...) (135 or.) / *Dio* doktor hunek ezen behin gizon saindu batek ikhusi zuela bere espirituan, ... (277 or.)
- (¿Zer da guztientzako Erabagia?) *Da* Erabagi agiri bat, ... (R.M. Azkue, *Baionako Dotrinaren itzulpena*, 1897, 6) / *Eukan* seme bat azkarra, zolia ta ona; ... (*Grankanton arrantsaleak*, 188? -*Euskera*, 1988-, 382) / *Itzan* [*Zen*] Mari'nasi (Mari Manun alaba zarra) amasei urteko neskatila bat gorputzez ederra ta arimaz ederragoa. (*Peru Matraka ta Pedr'anton*, 1889-90, 56) / (... Diputazinoiak aintzat eta ontzat artu dau, Donostiako euskalzale batzuk eginiko eskaria;) eta *da*, Gipuzkoako kale erdalizendunai euskerazko izena ondoan ezartea. (*Euskalzale*, 1897, 7) / (... *embajadoreak* paper bat emon dautsa Turkiako agintariari,) eta *dirautsa* entzun daizala beste errietako bialkinen eritxiak, ... (*Euskalzale*, 1897, 7) / ...; eta *dio* Lamiak, ibiltzean, oinatz (rastros) biribila uzten zutela. (*Lamiak Euskalerrian*, *Euskera* 1927, 96)
- *Zan* egun bat eguzkirik gabea. (A. Campion, *Okendoren eriotza*, 1883 -*Leiendak*, 1990, EEE-, 136)
- (... gauza miragarri, ta ecin ucatucodan bat arquitucodu,) eta *da*, Euscaldun bacoizac bere Izquera ceñ era, ta armonia ederrean gordetzen duen, ... (A. Cardaveraz, *Eusqueraren Berri Onac*, 1761, 12)
- Ai, ene semea, *nago* heian buru gogorra duzunetz. (J. Duvoisin, *Laborantzako Liburua*, 1858 -1986-, 95). / *Diozu* ez duzula ikhusten arbola jorratzerik. (178)
- *Dio* Caton çuhurrac: ... (J. Etcheberri, *Laburdiri escuararen hatsapenac*, 1712 -1907-, 89) / (Cer da verboa?) *Da* perpausaren parte bat

- ceina ... (... *escuarazco hatsapenac latin ikhasteco*, 1712 -1907-, 282)
- *Nago*, hain baitzen ona, egarri ginen baino ardurago ez ginuenez hurruputzen; ... (J. Etchepare, *Buruchkak*, 1910 -1980-, 84). / *Daukat* ez dela gizonik galde hoitarik bakar bati ihardets dezakenik. (109)
 - *Dirade* gure fedearen misterioric principalenac, ... (J. I. Guerrico, *Cristau Doctrina I*, 1858, 31)
 - ..., eta *ceritzan Jacob*. (F. I. Lardizabal, *Testamentu zarreco* ..., 1855 -1887-, 36) / *Dacusu* zartu naizala, ... (39) / *Ciotsan*, bada; Het-en alabac vicitzez asperturic naucate, ... (41)
 - *Edo da* biotzecoa, edo ez da; ... (M. Larramendi, *San Agustin egune-ko sermoia*, 17?? -1990-, 69) / *Diot* bada aren santutasuna are andia-goia dala aren argia baño. (69)
 - ..., serren *daucat* gaurr asco sereguin. (R. Micoleta, *Modo Breve de aprender la lengua Vizcayna*, 1653 -1897-, 23)
 - *Daucat* Jangoicuac emonda emazte otzan, baquetsu, ... (J. A. Moguel, *Peru Abarca*, 1881, 92) / *Daucadaz* seme bi ta beste aimbeste alaba. (93) / *Dacustaz* nic iru ta lau echaguntzaren jaube dirri-nac, ... (93) / *Nua* vidia edeguitera ... (132)
 - ..., eta *daucat* confiancia ceure ontasun, eta misericordija chito andi-jan, ... (B. Olaechea, *Dotrina Cristiana*, 1763 -1848-, 11)
 - *Bagnan çiren* sodomaco Iendéac gachtóac eta haguitç bekhatóreac Eternalaren contra. (P. Urte, *Biblia, Ethorquia*, 1700 -1894-, 23)

Egia da esaldi hauek ez direla inoiz izan euskaraz, estatistikoki, kopuru nahikoa txiki bat baino.⁵ Zergatik, ordea, gaitzetsi erderismoaren estigma-ekin, Azkue-Altubez geroztik egin den bezala? Berriro ere nahikoa da gure belarriak pixkaren bat irekitzea, konturatzeke, zenbateraino diren halako esaldiak, usuzkoak ahozko euskaraz, hiltun hoberenaren ere. Zuhurtziaz ikasi behar genuke, aditz trinkoak ere hainbateko maiztasunez agertzen direla euskaraz esaldi hasieran; eta, batik bat, aditz perifrastikoak bezalatsu: galde-erantzun jokoetan (*Dotrina* gaitzetsietan horren maiz bezala); entendimentuzko aditzen kasuan (*Diot*, *Nago*, *Daukat*, *Dakuszu*, ... eta kidekoak); maiz kopula bera (*da*, *dira*), edota antzeko aditzak, oso testuinguru zehaztu baten ondoren, esplikatibo modura (Gauza bat esan nahi dizuet, eta *da* ...; Esango dizuet non dagoen. *Dago* ..., modukoak); baita ere, nahiz nahikoa bakanago, beste nolana hiko aditzak, goiko adibideen artean suma litekeen bezala. Eta, berriro, halako erabilera bat zilegiztatzeko, nahikoa dirudi, aditz perifrastikoen kasuan bezalaxe, aditza galdegaiarekiko multzo foniko independente batean ematearekin, eta gorantzako entonazio bat gordeaz, iragartzen ondoren emango diren prediku-zatien garrantzia.⁶ Berriro, azterketa estatistiko zabalago batek lagundu beharko liguke hobeto ezagutzen, esaldi hauen maiztasun konparatiboa, nola euren erabileraren testuinguru zehatzagoak.

**Finean, estrategia
komunikatibo
batek
dislokazioak
uxatu behar ditu**

Dislokazioak uxatu. Bi hitzok laburtuko lukete mezua. Estrategia komunikatibo guztien helburua izan behar baitu, ahalik eta gehien uxatzeak klase guztietako etenak / dislokazioak, elkarrekin erlacionatutako elementuen artean, hala esaldi bakoitzaren barnean, nola, batez ere, segidako esaldien artean. Eta helburu soil hau eskuratzen lagundu behar ligu-kete, batez ere, euskararen berezko ezaugarriak ordenamendu libre baterako, nola askatasun horren barne euskarak berez duen joerak, aditz aurreratzearen estrategia praktikatzeko, esaldi nagusi nola mendekoe-tan. Eta finean, gaindituaz, Azkue-Altuberen ondorengo deformazioak.

Eta, izan ere, aditz aurreratuen praktikak, nola gure tradizio guztietan usuenik aurkitu dugun, *1. elementu laburrak + 2. aditza + 3. esaldiko elementu luzeenak* bezalako segidak (Altubek beti aurka gomendatutako *Debe procurarse empezar la oración por su miembro más largo*,⁷ haren aldean) oso maiz uxatuko dituzte dislokazioak. Batetik, esaldi bakoitzaren hasiera aldean emango dituztelako, maizenik aurreko esaldi eta tes-tuinguruarekiko lotura diren aditza eta elementu labur haiek, marku predikatiboaren parteak (zeinen artean, baita ere, mendeko esaldietako erlazio-atzizkiak). Eta bestetik, esaldi bukaeran emango dituztelako, elementu luzeenak, usuenik berrien eta predikatiboenak, maiz bihurtuko direnak era berean eta horrexegatik, ondorengo esaldien mintzagai / marko predikatibo berriak, zeinen gainean segitu nahiko den predika-tzen ondoko esaldietan. Azkenik, esaldi bakoitzeko aditz aurreratuak ezin gehiago lagunduko du lehenbailehen eraikitzen esaldi barreneko unibertso predikatiboa, zeinen barne samurrago ulertuko diren beti beste elementu guztiak.

Aldiz, Azkue-Altuberen lege artifizialek, elementu luzeenak hasieran ematea gomendatuz, mendeko esaldiak nagusien aurretik, eta aditzak bukaera aldera, zeharo iraultzen dute testuen egitura komunikatiboa. Ezin dislokazio handiagoak eragingo dituzte, esaldi bakoitzaren barne eta esaldi-kateetan, elkarrekin erlacionatutako elementuen artean. Eta hainbat eta dislokazio ikaragarriagoak, zenbat eta luzeagoak esaldiak eta esaldi-kateak, eta orduan eta testu ulergaitzagoak. Horregatik, Azkue-Altuberen egiturak, jeneralizatuak, ez dira euskal prosarako ez komenigarriak eta ez gomendagarriak; nahiz puntualki egokiak gertatu. Endemas, bariatatean ere bada beti gustu bat. Eta gurea, guztien gainetik da ordena libreko hizkuntza bat.

**Euskal joskeraren
beste mito
kaltegarri /
aztertu beharreko**

Aitatu besterik ez, bukatzeko, euskal joskeran, gaur egun izan dutena baino azterketa sakonagoa merezi luketen beste lau puntu bederen.

Lehenengoa, esaldi nagusien joskeraren inguruan. Euskara hasten baita, estatistikoki, SOV (Subject-Object-Verb / (SOA) Sujetua-Objetua-Aditza) ordenako hizkuntza izaten, bakarrik, Azkue ezkerotik, eta eskola Azkue-Altubetarrean. Bitarteko estatistikak, nola gaur eguneko ahozko hizkerarenak, nagusi erakusten du euskara, SVO (SAO / Sujetua-Aditza-Objetua) ordenako hizkuntza bezala praktikan. Bestalde, ohartu, gure gaur eguneko prosa arrunta, beharbada, dagoela hurbilago OVS

(OAS) ordena batetik, unibertsalki bitxi eta anti-komunikatiboa, legez aitortzen zaion SOV (SOA) horretatik ere baino. Bi ordenok dira, hain zuzen, Azkuek artifizialki predikatzen dizkionak euskarari 1891ko *Euskal Izkindea*-tik hasita (344-5 orr.), eta ordu ezkeroz eskola luze egin dutenak duda barik.

Bigarren bat, erlatibozko esaldien joskera arruntaz. Gaur eguneko gramatiketan eta prosan ia erabat ahaztua baitugu, erlatibozko esaldiak oso maiz ematen direla euskaraz, literaturan eta ahozko hizkeran, lagundu nahi duten izen haren ondoretik emanak ere, aposizio modura (Badira *baserritarrak* lana gogotik *egin dutenak*; Ez dago *dirurik* hori *eros leza-keenik* modukoak). Eta baita ere beste neurri apalago batean, izen mugatu gabe soil baten ondoretik emanak (Badira *baserritar* bizar eguiten *jarduten dabeenac*, ...⁸; Autu ote ditezque *Apaiz*, Erlegioco Ordenacoac *ez diranac?*,⁹ modukoak). Gaur egun batere propagandarik egiten ez zaien erlatibozko forma hauek guztiak, biziki lagunduko ligukete uxatzen, erlatibozko esaldietan horren maiz gertatzen zaizkigun dislokazioak eta iluntasunak. Zer esanik *ez*, izen multzo batek berak, erlatibozko esaldi bi edo gehiago dituenan inguruan.

Hiru. XX mendeko euskaltzaleok, eta, batik bat, hegoaldean, oraindik daukagu konpontzeke, *anti-zeinismoaren* arazoa ere. Erdaratikoa delakoan, Azkue da ere, 1891ko *Euskal Izkindea*-tik, aitalehena, gaitzeste artifizial honena; XX mendeko iraultza sintaktikoaren hirugarren adarra, berak bakarrik ere, erabat itxuraldatu eta trakestu duena mende honetako prosa-eredua. Oraindik gabilta atea berriro nola ireki ez dakigula, behar bezala, euskarak hain berezko, eta beharrezko, duen errekurtsio honi.

Azkenik, Azkue-Altuberen joskera-iraultzaren laugarren hanka bat ere bagenuke zeharo berrikusi beharrean, mende honetan, eta batere fundamenturik gabe, esaldi hasierarako gaitzetsi edo baztertu ditugun juntagailuen artean. Eta aldiz horren maiz ikusten ditugunak, lotu nahi edo behar luketen esaldi (luze) haien amaieran, jadaneko zer loturik asko ez duten lekuan emanak. Besteak beste, *aitzitik*, *aldiz*, *alegia*, *bada*, *baina ere*, *baita ere*, *baizik*, *bakarrik*, *behintzat*, *bederen*, *beraz*, *berriz*, *bestalde*, *eta ere*, *ezpada*, *ezta ere*, *gutxienez*, *hain zuzen (ere)*, *ordea*, *ostera* eta antzekoak. Baita ere, hauez gain, jada zeinismoarekin zerikusi estua goa duten partikula anaforikoak, galdegileetatik eratorriak edo, *eze*, *ezen*, *nola*, *ze*, *zeren*, *zerren*, *zergatik* eta antzekoak. Zorionez, hasiko gara halakoak konpontzen *Orotariko Euskal Hiztegia*-ren itzaletik ere.

Oharrak

* B. Hidalgo, *Euskal joskeraren mito kaltegarriak*, Hizpide 35, 39-51 orr.; eta *Euskararen hitz ordena librea*, Hizpide 36, 21-27 orr.

1 Hala moduz dio Altubek 1919an (*De sintaxis euskérica*, 26-7 orr.), eta berdintsu 1929an (*Erderismos*, 59-60), ilustratuaz bere ikuspuntua, Tx. Agirre, Bustintza eta Prai Bartolomeren adibide ohargarriekin. 1919ko *De sintaxis euskérica*-n nolana, oraindik emango du liburu amaieran eranskin ezin garrantzitsuagoa, *Azken adbertimendu* zuhurra, arretaz irakurtzea merezi duena, Altube berak erakutsiko baitu bertan, bere sistema osoaren ahulezia eta ezdeusa. Hala dio (93 or.): «*En el capítulo III, al tratar del uso de las oraciones afirmativas, se nos escapó sin anotar la importantísima regla que exponemos á continuación. / «Toda oración, en la que ninguno de sus términos ó elementos se destaca por su importancia sintáctica para poder ostentar con propiedad el carácter de inquirido, debe ser construída en la misma forma que aquellas cuyo elemento inquirido es la cualidad afirmativa del verbo. / »En otros términos: las oraciones neutras, en cuanto a la forma sintáctica, son en euskera las puramente afirmativas. / »He aquí algunas oraciones de este género: /... / Ikusiko dogu, arrek be zer egin dayen. / Esta clase de oraciones (sobre todo cuando su flexión verbal es de forma perifrástica) parece que resulan más expresivas comenzándolas por el verbo.» Esango litzateke, 1919an Altubek oraindik adiskidetu nahi ote duen, nolabait, aditz aurreratuko tradizio nagusiarekin. Zoritzarrez oharra, horren inportantea izanagatik, ahaztu egingo du 1929rako.*

2 Halako esaldiak, euskaraz betidanik oso arruntak izan badira ere Altubek aitortu bezala, praktikan honen galdegai-legeek erabat galarazten dituzte, eta ia desagertu ere egin dira gure gaur eguneko prosa-eredutik, zoritzarrez, nahiz Altube berak atxikimendu berezia zien, segidan ikus genezakeen bezala. Altubek ez du gehiegi idazten euskaraz: artikulua batzuk, hitzaldiren bat, ipuin bat edo beste. Prosa-lan luze eta sendoena, *Laztantxu eta Betargi* kontaera, jada heldutasunean argitaratuko zuen, 1957an (*Alderdi* aldizkarian, eta liburu bezala ere Baionan, bere biga-

rren abizen Lertxundi izenpean; J. San Martinek 1979an ere Hordago-n). Zail da sinisten, lana Altuberena izan litekeenik ere, ikusirik zenbateraino aurreratzen diren aditzak bertan. Erakusgarri eta erreflesio bide, esaldi segidok (1979, 41-3 orr.): «Orraitio, ongi *záintzen zuan*, gau-ta-egun, ardura ori *zuan* emakumeak. Amak ere, arratsaldero *egíten zion* ikustalditxo bat. / ... / Egun aietako baten, Laztantxuk, oraindik oian zetzala, *entzun zítuan* sirena-irrintzi itunak: Franco-tarren egazkiñak *agértu baitziran*, Arrasturiko odeietan. *Jetxi beár zuten*, etxeko denak, gorde-tokietara. Laztantxuri, *leporatu zión* amak abrigu bat, eta *eraman zítan*, eskillar-bera, nekez, *ezpaitzuan*, arek, oraindik, oiñez ibiltzeko indarrrik. / An, gorde-tokian, amak asarre-bizian *ekín zion* Laztantxuri, degrazi guzi aien kulpak, abertzaleek balituzte bezela ... Laztantxu negarrez asi zalarik, *eman zizkion*, amak, bi mosu goxo, parkatzeko esanda. / Francotarrak, *sartu zíran*, sortzaldetik, Donostia-n. Eta Arrasturiko gudariak, berri txar ori naikoa izan ezpalute bezela, *jakín zúten* beste mingarriago bat: ... / Betargik ere, *preparatu zítuan* bere bide-gaiak: soiñeko, paper eta abar. / Ezin iruntsi zezakean bigarren beazun mingoitzi ori, eta *asi zítzaion* esateko guziak esaten: ... / ... / *Eraman zíen* azukre-ura eta anizete pixkat, baita zigarruak ere. / *Agertu zíran*, an-or-emengo beste gudari batzuk; eta gaiso-kamioietan, sartu saurituak, eta *joan zíran*, denak, Bizkai-alderantz. / ... / An *gélđitu zan*, beraz, Betargi, erdi eskutuan, bigarren etxe-bizitzan, koiñauaren bizitegi-barrenean. / Laztantxuren etxeak, atzealdean *zuan* galeriatik, an *agíri ziran*, Kurtzetxiki-menditik bera, geldi-geldi zetozten Francotar soldaduak. Oik ere, ibiltzeko gogo aundirik gabe. *Eldu ziran* Plazara, lengoak bezela, erdi-illik, errukigarri, oiñak ondaturik eta aunditurik, eta egarriak -itota.» Hori ez bada gure tradizioko joskera! Ez dena da, noski, altubetarra, nahiz Altuberena izan. Beraz, edo Altubek ez ditu bere erregelak gordetzen, edota ondorengook oso txarto ulertu dugu bere mezua. Agian biatarik.

3 Esaterako, gure lehen klasiko narratiboa hartzearren, Moguelen *Peru Abarca*-ren hirugarren elkarrizketako prosa testuan, 56 esaldi ere izango dira zuzenean aditzaz hasten direnak, 19 baino ez diren bitartean aditzaz amaitzen direnak, eta 105 aditza esaldi barrenean erakusten dute-

nak. Denera 180 esaldi, baiezko deklaratio nagusiak konplementuren bat dutenak, zeinetako % 10,6a baino ez den amaitzen aditzaz; % 58,3k aditza esaldi barrenean dute; eta % 31,1 zuzenean aditzaz hasten da. Datu hauetatik kanpo uzten ditugu beste hamar esalditako aditz trinkoak, *ba* aurrizkiari lotuak ematen direnak.

- 4 Kontutan hartu beharko da, baiezko aditz perifrastikoetan, aditz laguntzailea badoala jadaneko bigarren elementu bezala erantsita, bere aurreko aditz partizipio toniko bati, eta hala, berez ere betetzen duela, euskal aditzaren joera nagusi hori.
- 5 Baita esaldi hasierako aditz konposatuen aldean ere. Moguelen aitatu kasuan, badira nolana 9 esaldi ere zuzenean aditz trinkoz hasten direnak, aditzaz hasten diren 56etatik, % 16,1. Esaldi kontagarri guztien, % 0,5a baino ez, eta ez da Moguel atzera geratzen den autorea halako egiturak erabiltzen. Eta izan ere, aditz trinkoek esaldi hasieran, perifrastikoek ez bezala, gordin eta zeharo hautsi beharko dute euskal aditzaren berezko joera bigarren elementu bezala agertzeko multzo foniko batean. Horregatik ere agertuko dira maiz aditz trinkoak esaldi aurrealdean edo hasieran, *ba-* edo *ez* bezalako partikulei erantsita, eta bigarren elementu bezala.
- 6 Mitxelena ere hala moduzko erreflexioak egingen ditu aditz hauen inguru 1979an, euskarazko

hitzen ordenari buruzko ohar interesgarri zenbaiten artean (*Miscelánea Filológica vasca*, FLV, 1979, XI, 227 or.): «Advierto, por si acaso, que ya he indicado en otro lugar que el pecado de los viejos catecismos y otros escritos, tan acerbadamente censurado, acaso no fuera tan imperdonable como a primera vista pudiera parecer. En efecto, al responder *Da gauza bat ... a Zer da Jaungoikoa?*, por citar pregunta y respuesta clásica en otro momento, puede muy bien pensarse (y esto no es nada infrecuente en la conversación más corriente) que la respuesta se apoya en la pregunta, con elisión de un *Jaungoikoa* o de su equivalente, que ya va expreso: sé que esto fonológicamente se parece a colgarse de una cuerda que se ha lanzado al aire y no se apoya en nada, pero así sucede. Algo parecido podría decirse de los incisivos del tipo *dio san Tomasek* (cf. fr. *dit-il*), tan corrientes en Axular y otros, que también quebrantan, al menos en apariencia, la regla de que el verbo finito, sea auxiliar o no, no puede encabezar oración.»

- 7 *Erderismos*, 1929, 309 or.
- 8 Moguel, *Peru Abarca*, 1802 -1881-, 48 or., zeinengan ere, besteak beste, ezin ugariagoak diren antzeko adibideak.
- 9 J. B. Aguirre, *Eracusaldiac I*, (^a1808), Tolosa 1850, 81 or., nahiz ez izan autore honengan Moguelengan bezain ugariak.